

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ALKATETZAREN ETA ERAKUNDE HARREMANEN SAILA

Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrek 2017ko urriaren 6an hartutako erabakiaren laburpena: aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak euskaraz antolatzeko eta emateko diru-laguntzetarako deialdia

BDNS (Identifikatzailea): 367351

Diru-laguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8 a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da; horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen datu-basean <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index> kontsulta daiteke.

Lehenen. Onuradunak

Haur eta Gazteen Aisialdirako Hezitzaileak Trebatzeko Eskola ofizialki izendatua duten pertsona juridiko pribatuek eskura ditzakete diru-laguntzak.

Bigarrenen. Helburua

Oinarri hauen xedea da astialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak euskaraz antolatzeko Vitoria-Gasteizko Udalak emango dituen diru-laguntzak arautzea. Diru-laguntza horien bidez Udalak euskarazko ikastaroak bultzatu nahi ditu eta ikasleentzat lehiakorragoak bihurtu.

Hirugarrenen. Oinarri arautzaileak

Gasteizko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrek 2017ko urriaren 6an egindako ohiko bilkuran onartu ditu, eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrenen. Zenbatekoa

Deialdiari 6.300 euroko aurrekontua egokitu zaio.

Bosgarrenen. Eskabideak aurkezteko epea

30 egun natural, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko urriaren 6a

Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saileko zuzendaria
BLANCA GUINEA ASTOBIZA